

MAIATZA LUZEA

Etxe batean, kakotik eskegita zeukaten urdaiazpiko gorri galant bat. Negu gorria zen, eta urdaiazpikoari esker negua ondotxo igaroko zuten, gose handirik izan gabe. Baina etxeko mutiltxoak, gose zen batean, honela esan zion amari:

- Ama, noiz jango dugu urdaiazpiko hori?
- Ai txotxo! Eramango du maiatza luzeak.



Nonbait, amak ez zuen nahi oraindik urdaiazpikoari ukitzerik. Handik aldi batera, eskale handi bat joan zen etxe hartar aeta, makilaz atea jorik, otoitzean hasi zen; etxeko mutiltxoak etxe barrutik honela esan zion:

- Nor zara zu?
- Maiatza luzea naiz ni-esan zion eskaleak.
- Jaungoikoa! Zu zara beraz? Hementxe duzu, bada gure amak gordeta, zuri emateko urdaiazpikoa.

Mutikoak hartu zuen, ia jaso ere ezin zuen urdaiazpikoa gorri ederra, eta eskeko agureari aman zion; agurea, hain gauza ederra bere zorroan ikustean, poz-pozik joan zen bere bideetan zehar.

Ama etxera bihurtu zenean, mutiltxoak kontatu zion urdaiazpikoaz egin zuena. Eta amak:

- Txotxo! Zer egin duk?
- Ez zenuen, bada, esan maiatza luzeak eramango zuela? Berak eraman du.
- A! Ume aldrebes, kakatsua! Berriz ere pasa beharko duk gose galanta, eta baita guk ere hiregatik. Etxean genuen gauzarik ederrena galdu duk. Orain, talo eta artoaz igaro beharko diagu negu osoa. Baina, nahiz eta urdaiazpiko hura falta, etxe hartako inor ez zuen goseak hil.

MAITZA LUZEA

1.- Zertarako zeukaten urdaiazpikoa kakotik eskegita?

- A.- Negua gose handirik gabe pasatzeko.
- B.- Gosez etortzen zen jendeari emateko.
- C.- Euliak uxatzeko.



2.- Gose zen batean, zer galdetu zion etxeko mutilak amari?

- A.- Ea noiz jan behar zuten urdaiazpikoa.
- B.- Ea zer zegoen bazkaltzeko.
- C.- Ea urdaiazpikoa jateak kalte egingo zion.

3.- Zer erantzun zion amak?

- A.- Lasai egoteko, urteak hamabi hilabete zituela eta.
- B.- Maiatzean erantzungo ziola.
- C.- Maiatz luzeak eramango zuela.

4.- Zergatik erantzun zion hori amak?

- A.- Bere urtebetetzeak maiatzean zirenez, orduan jingo zutelako.
- B.- Oraindik urdaiazpikoari ukitzerik ez zuelako nahi.
- C.- Hoiek, umeen kontuak ez direlako.

5.-Halako batean nor azaldu zen?

- A.- Amaren senarra.
- B.- Mutikoaren aita.
- C.- Eskale bat.

6.- Nor zela esan zuen ?

A.- Amaren senarra.

B.- Mutikoaren aita.

C.- Maiatza luzea.

7.- Zer egin zuen mutikoak?

A.- Urdaiazpikoa eskaleari eman zion.

B.- Urdaiazpiko zati bat eman zion.

C.-Ea urdaiazpikoa nahi zuen galdetu zion.

8.- Zer esan zion amak mutikoari?

A.- Ondo egin zuela, eskaleak gose gehiago izango zuela eta.

B.- Bere erruz, etxekoak, eta bera ere, gosea pasako beharko zutela
neguan.

C.- Hurrengo batetan, hori egin aurretik amari galdetzeko.

9.- zer pasa zitzaien etxe hartakoei?

A.- Zakurrak hartu eta eskalearen bila joan ziren.

B.- Gosez hil ziren.

C.- Urdaiazpikoa falta arren ez ziren gosez hil.